

GENEROAK BANANDUTAKO ERRESUMAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Vincennes (Frantzia), 1328ko otsailaren 1a. Karlos I.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa, Kapeto etxearen azken erregea, hil zen. Frantziarrek *ederra* ezizena (Charles *le Bel*) ipini zioten, nafarrentzat, aldiz, Karlos *burusoila* zen (batak ez baitu bestea kentzen). Baina hil zenean ilerik eza ez zen arazoa, gizonezko oinordekorik eza baizik. Karlosek bi alaba utzi zituen eta hirugarrena bidean zen; Joana Evreuxekoa alarguna, erregearen hirugarren emaztea, haurdun zegoen senarra hil zenean, baina aurrerago beste neskato batez erdituko zen. Lege salikoa medio, Frantziako oinordeko zuzenenek ezin zuten aitaren tronuan eseri.

Lege salikoa franko saliarren lege kodea zen –hortik zetorkion izena–, V. mendean bildutakoa eta ondorengo mende askotan indarrean egon zena, zatirik ezagunenean, monarkiaren oinordekotza arautzen zuenean, behintzat: emakumeek ezin zuten erregetza eskuratu. Saint-Germain-en-Layen bilduta, hildakoaren gizonezko senitarteko gertuenekoen artean aukeratu behar zuten monarka berria. Hauek ziren hiru hautagaiak: Eduardo III.a, Ingalaterrako errege izendatu berria eta hildakoaren iloba, amaren aldetik; Filipe Valoisekoa, Karlosen lehengusua aitaren aldetik; eta Filipe Evreuxekoa, hildako erregearen iloba Joanaren senarra.



Ezkerrean, Karlos I.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa. Alboan, Filipe VI.a eta Joana Burgundiakoaren koroatzea 1328ko maiatzaren 29an.



Lehen hautagaia behintzat kanporatu nahi zuten frantziarrek, Ingalaterrako koroak Frantziakoa xurga ez zezan. Horretarako 1302an lehenengoz bildutako Estatu Orokorrak berriro elkartu ziren eta oinordekotza legea aldatzea erabaki zuten: emakumeek lehenago ere ez zuten erregetza lortzeko aukerarik, baina oinordekotza transmititzeko eskubidea ere galdu zuten arau berrituaren eraginez. Hala, Filipe Valoisekoa bakarrik betetzen zuten eskakizuna eta hura izendatu zuten Frantziako errege.

Nafar agintariak ere Karlos I.a hil eta berehala bildu ziren oinordekotza erabakitzeko. Generoagatiko mugarik gabe, Karlosen iloba eta Luis Hutinen (Luis I.a Nafarroakoa eta X.a Frantziakoa) alaba

Joana izendatu zuten Nafarroako erregea. Eta horrenbestez, Nafarroako eta Frantziako koroak banandu ziren.

Baina ez zen hura oinordekotza lege baztertzailaren ondorio bakarra izan. Ingalaterrako erregeak ere ez zuten onartu izendapena, eta legea iruzurtzat jo zuten. Haren kezka ez zen Nafarroako Joanaren edo Karlosen alaben patua. Filipe IV.a Frantziakoaren gizonezko iloba bakarra zen Eduardo III.a eta beretzat nahi zuten Frantziako koroa. Eta koroa jantzi ezean, Frantziaren aurka egiteko aitzakia zeukan. Frantzia eta Ingalaterraren arteko ezinikusia aspaldiko kontua zen, baina, azkenean, Nafarroaren eta Frantziaren arteko lotura dinastikoa hautsi zuten erabaki hark berak piztu zuten Ehun Urteko Gerra. ■



PARKER & COWARD

Sekula erregistratutako hotsik ozenena

1888ko abuztuaren 27an, Krakatoa sumendiak eztanda egin zuen Ekialdeko Herbeheretar Indietan, egungo Indonesian. Eztanda handik 5.000 kilometrorra ere entzun zen, planetaren hamahirurenean edo, bestela esateko, lurrazal osoaren %7,7an.

Burrunbak airearen presioan eragina izan zuen eta Bataviako (egungo Jakarta)

gas fabrika bateko barometroak erregistratu zuen astindua. Merkurioak 6,5 zentimetro egin zuen gora eta horrek esan nahi du zarata 172 dezibelekoa izan zela. Mailu pneumatiko batek 100 dezibeleko hotsa egiten du eta erreakzio-motor batek 150ekoa, soinua jatorrian bertan neurtuz gero. Baina gas fabrika hura Krakatoatik 160 kilometrorra zegoen. ■